

LANGILERIAREN KUDEAKET ARAKO ZUZENDARIAREN 2012ko ABENDUAREN 14ko EBAZPENA, 2012ko EKAINAREN 18ko AGINDUAREN BIDEZ DEITUT AKO HEZKUNTZA IKUSKARITZARAKO LEP EBA TZI IZANAREN ONDORIOZKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA IKUSKARITZAKO LANPOSTUAK ESLEITZEKO PROZEDURA ET A IRIZPIDEAK FINKA TZEN DITUENA.

1.- Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskarien Kidegora sartzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko ekainaren 26ko aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozeduran lehiaketa-oposizioa ebatzi ondoren, lanpostu bat esleitu behar zaie praktiketako funtzionario gisa, praktika-fasea burutu ondoren, selekzionatutako pertsona guztiei.

Edonola ere, prozedura honek bukatu ondoren ere jarraitu beharko dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskarien Kidegokoak ez izan arren, Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioak beteko dituzten pertsonekin, urtarrilaren 13ko 3/2009 dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuen zerrenda onartzen duenak, agertzen dituen lanpostuak betetzeko.

Ildo horretan lanpostuak esleitzeko prozedura bat eratu behar da, faseak, jarduteko eremuak eta interesatuta dauden pertsonak beren aukerak erabili ahal izateko irizpideak ezarriko dituena. Prozedura horretan kolektibo hauek hartuko dira kontuan: deialdiaren oinarrietan xedatutakoaren arabera praktiketako funtzionario izendatuta izan behar dutenak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostu batean aritzeko zerbitzu-eginkizun bat izan duten eta lanpostu bat berriro aukeratu nahi duten pertsonak.

2.- Eremu subjektiboa

Prozedura honetan parte hartzeko kolektibo hauetako baten kide izan beharko da:

- a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailbumaren 2012ko ekainaren 26ko aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozeduran selekzionatutako pertsonak. Pertsona horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskarrien Kidegora sartzeko eskatutako baldintzak bete beharko dituzte eta praktiketako funtzionario gisa hartuko dute prozedura honetan parte.
- b) 2010-2011 ko ikasturtea baino lehenago Ikuskaritzako lanpostuak zerbitzu-eginkizlmean bete dituzten pertsonak eta 2011-2012ko ikasturtean Ikuskaritzaren finantzioetan zerbitzu-eginkizunaren erregimenean ari izan diren eta ebaluazio positiboa eman zaienak. Kasu bietan prozesuan parte hartu ahal izateko 2012-2013 ikasturtean, ikuskapen lanetan aritu izana eskatzen da.
- e) Izendatutako epaimahaiak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailbumaren 2012ko ekainaren 26ko aginduak 5. puntuaren xedatutakoaren arabera, ordezko gisa selekzionatu dituen pertsonak.
- d) 2011-2012ko ikasturtean Ikuskaritzaren funtzioak zerbitzu-eginkizunetan bete zituzten eta 2012-2013ko ikasturtean egoera horretan jarraitzen duten pertsonak, aurreko taldeetan sartuta ez badaude.

3.- Eremu objektiboa da esleitzeko irizpideak.

Esleitzeko unean dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostu hutsak eskainiko dira prozesu honetan, baita atxikita dauden, izendatuta dauden edo aldi baterako beste lanpostu batzuetan ari diren Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza ikuskarrien kidegoko pertsonentzat erreserbatuta dauden lanpostuak ere.

2012-2013ko ikasturtean ikuskari-lanpostu batean zerbitzu-eginkizunetan ari diren pertsonak zerbitzu-eginkizun hori utziko dute, zerbitzu-eginkizlma baliogabetzeko Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzak emango duen ebazpenaren arabera. Pertsona horiek egin alial izango dute beste ikuskari-lanpostu bat esleitzeko eskaera, ebazpen honetan ezarritako prozeduraren arabera.

Esleitzeko irizpideak hauek izango dira:

- a) kolektiboko pertsonak aukeratze-prozeduran lortutako puntuazioak ezarritako ordenaren arabera aukeratuko dituzte lanpostuak.
- a) kolektiboko pertsonak hartu ez dituzten lanpostuak aukeratuko dituzte b) kolektiboko pertsonak, hurrengo atalean xedatutakoaren arabera.

a) eta b) kolektiboetako pertsonak hartu ez dituzten lanpostuak aukeratuko dituzte e) kolektibokoek, aukeratze-prozeduran lortutako puntuazioak ezarritako ordenaren arabera.

a), b) eta e) kolektiboetako pertsonak hartu ez dituzten lanpostuak aukeratuko dituzte d) kolektibokoek, hurrengo atalean xedatutakoaren arabera.

4.- Lanpostuak esleitzeko prozedura.

Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzak alde zuzenetik deialdia egin ondoren, lanpostuak esleitzeko dira. Prozesua fase hauetan, hurrenez hurren, eramango da aurrera:

10 Praktika-fasea egiteko selekzionatutako pertsonak.

Aukeratze-prozesuaren deialdiak 12.5. oinarrian xedatutakoaren arabera, prozesu horretan lortutako puntuazioaren arabera esleitzeko dira destinoak.

Pertsona horiek lurralde historikoa besterik ez dute aukeratu behar, lanpostuen zerrenda eratzen den eran ez baitago lanpostu batzuen eta beste batzuen arteko desberdintasunik. Gipuzkoan, gainera, dauden bi lantokietako edozein aukeratuko dute: Donostia edo Eibar.

20 2010-2011ko ikasturtea baino lehenago Ikuskaritzako lanpostuetan zerbitzueginkizunetan ari izan diren pertsonak, baita 2011-2012ko ikasturtean Ikuskaritzaren funtzioetan ari izan ziren eta, ebaluazio positiboa izan arren, aukeratze-prozesuan selekzionatuak izan ez diren pertsonak ere.

2010-11 ko ikasturtea baino lehenago Ikuskaritzako lanpostuetan zerbitzu-eginkizunetan ari izan diren pertsonak hartuko dute fase honetan parte, baita 2011-2012ko ikasturtean Ikuskaritzaren funtzioetan zerbitzu-eginkizunetan ari izan ziren eta ebaluazio positiboa izan duten pertsonak ere. Bi kasuetan izango dute 2012-2013ko ikasturtean destinoa duten ikastetxean eta erre gimnaseoetan lanpostuak hautatzeko aukera.

Lanpostuak aukeratzeko, Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan zerbitzuan emandako denbora izango da parte-hartzaileak ordenatzeko irizpidea. Berdinketa gertatuz gero, karrerako funtzionario irakasle gisa emandako zerbitzu-denbora erabiliko da berdinketa hausteko irizpide gisa. Berdinketak jarraituz gero, irakasle gisa emandako zerbitzu-denbora guztia izango da hausteko bigarren irizpidea.

Ez da lanpostua derrigorrean aukeratu behar. Lanpostua lortzen ez duena erreferentziako ikastetxera itzuliko da.



VASCO:

3° Aurreko fasean lanpostua aukeratu ez duten selekzionatutako ordezkioak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko ekainaren 26ko aginduak 10.5. puntuak agertzen duen zerrenda espezifikoa arabera, aukeratze-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera esleituko dira destinoak.

Pertsona horiek lurralde historikoa besterik ez dute aukeratu behar, lanpostuen zerrenda eratan den eran ez baitago lanpostu batzuen eta beste batzuen arteko desberdintasunik.

Fase honetan lanpostu bat aukeratzeko duten pertsonen praktika-aldi bat egin ondoren ebaluatuko zaie. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskariren Kidegoari esleitutako funtzioak aurrera eramateko prestakuntza dutela egiaztatzea eta bermatzea ditu praktika-aldi horrek helburu.

4° 2011-2012ko ikasturtean Ikuskaritzako lanpostu batean zerbitzu-eginkizunetan ari izan diren eta aukeratze-prozesuan selekzionatuta izan ez diren pertsonak.

Izango dute destinoa duten lantoki berean eta 2012-2013ko ikasturteko erregimen berean Ikuskaritzaren funtzioetan aritzeko aukera.

Lanpostuak aukeratzeko, Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan emandako zerbitzu-denbora izango da parte-hartzaileak ordenatzeko irizpidea. Berdinketa gertatuz gero, karrerako funtzionario irakasle gisa emandako zerbitzu-denbora izango da berdinketa hausteko lehen irizpidea. Berdinketak jarraituz gero, irakasle gisa emandako zerbitzu-denbora guztia erabiliko da berdinketa hausteko irizpide gisa.

Fase honetan lanpostu bat aukeratzeko duten pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskariren Kidegoari esleitutako funtzioetan ari izango dira, 2012-2013ko ikasturtearen bukaeran ebaluatu arte. Ebaluazio positiboa badute, lanpostuan jarraituko dute.

5° Izendapenak.

Ebazpen horretan ezarritako prozeduraren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzan lanpostu bat lortzen duten pertsonen haien administrazio egoeraren arabera izendapena egingo zaie.

Prozesu horren ondoren, beste lanpostu batera atxikita dagoen, izendatuta dagoen edo lanpostu horretan aldi baterako ari den Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskariren Kidegoko pertsonaren bat bere lanpostura itzultzen bada, Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan eta lantoki berean zerbitzu-denbora gutxiago duen pertsona izango da zerbitzu-eginkizuna utziko duena. Urtarrilaren 13ko 3/2009 dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuen zerrenda onartzen duenak agertzen ditu lantokiak.

6.- Ordezkapenen zerrenda.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak behar diren argibideak emango ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskarien aldi baterako premiak betetzeko izangaien zerrenda arautzeko. Esleitzeko prozesu honen ondorioz Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostu bat hartzen ez dutenak aipatutako zerrendako kide izatera pasako dira.

7.- Ebaluatzeko prozedura.

Aldizka, zerbitzu-eginkizuneko erregimenean betetzen diren Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuak nola betetzen diren ebaluatuko du Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzak, zehazten diren ondorioetarako.

Vitoria-Gasteiz, bi mila eta hamabiko abenduaren 14a

